

AITORTZA GUTUNA

“Kaixo, aupa. Eta agur ere bai, dena batera.

Izan ere, eskuizkribu trakets hau irakurtzen ari bazara, nornahi zarela ere, zerraldo nagoelako da, hau garbi dago, ez du atzera bueltarik. Horregatik idazten ari naiz aitortza gutun hau, bizkar-zorroko sakelan tolestuta gordeko dudana, nortasun agiri, diru-zorro, eta bateria alferrrik ez xahutzearren itzalita daramadan telefonoarekin batera, ene amaiera goiztiarra agituz gero azalpen batzuk gera daitezen behintzat. Ezen eta txit unatuta nago, gaizki elikatuta aldapa larregi igo eta jaitsi ondoren, milaka metroko desnibela izterretan metatuta, orkatilak hanpatuta eta belaunak minduta ditudala daborduko, eta noski, istripua jazo daiteke mendi garaiotan, are gehiago norbera leher eginda dagoenean.

Dena iragan uztailaren azken igandean hasi zen, 3.083 metroko altuera duen Infiernos hiru tontordun mendia eskalatzeko asmoz herritik abiatu nintzenean hain zuzen, bakarrik, laket zaidan eran. Goizean goiz jaiki, ezti zorrotadaz gozatutako kafe katilua eta gailetak gosaldtu, autoan sartu, eta Iruñea zaharraren saihetsetik igaroz Huesca probintziaraino gidatu nuen, lau bat ordutara, eguna argitutakoan ibilgailua Panticosako bainuetxearen aldameneko aparkaleku erraldoian uzteko. Nagiak aterata botak jantzi, inguruko horma bertikalak miretsi bitartean energia-barra bat irentsi, motxila astuna bizkarreratu, eta kantinplora urez hornituta Casa de piedra izeneko aterpearen albotik goranzko estrata malkartsuari ekin nion. Laster Bachimañako urtegia eta izen bereko aterpe berria begiztatu nituen, eguzki errainuek bat-batean itsutu ninduten unean, eta geldialdia egin behar izan nuen, larruazalean erreduretatik babesteko ukendua hedatu, betaurreko ilunak ipini eta kaskarra biseraz estaltzeko, abagunea ura edateko ere profitatuz.

Atzera ere xendrari lotuta, ibiltari eta mendizale ugariarekin gurutzatu nintzen, GR ibilbide luze bat handik doalako. Tarte baten buruan Ibones Azules gainditu, eta elurtutako malda batera heldu aitzin neska bat sumatu nuen harkaitz baten gainean lasai eserita, ene eskuinaldean. Diosala egin genion elkarri, mendiko ohiturari men eginez, eta aurrera segitu nuen eremu zuria hasten zen lekuraino, bertan geratu eta oinetakoei altzairuzko kranpoiak katigatzeko, ohartu bainintzen mutil batek gibelerara egin behar izan zuela, beharrezko materialik gabe irrist egiten eta gorantz jarraitu ezinik egon ostean.

Egokiera berriro hidratatzeko baliatuta, elur eta izotzetan gora egin nuen oinez, kranpoien eztenak tinko iltzatuz zoru zurian eta pioleta eskuan neramala badaezpada, eta halako batean mutil bat eta lehengo neska agertu zitzaizkidan parean, ez dakit nondik jalgita. Gorago genekusan gailurrera iristeko eraz galdetu zidan mutilak, eta argitu nion elurtzan ageri zen lorratzari jarraitu behar geniola, gorago Tebarrai aintzira kausitutakoan ezkerretara jo, eta mendia inguratu ondoren ostetik azaldu behar ginela goiko erpinean. Errenkadan joanez osatu genuen hirurok

gorantzko txangoa, erritmo onean, noizbehinka hitzak edo keinuak trukatuz, neska gero eta berritsuago zegoela nirekin. Asturiaskoa zela esan zidan, eta berarekin zihoan mutila aldiz Kantabriakoa. Estreinako aldia zuten Pirinioetan, hilabetea mendiz mendi emateko joanak ziren bertara, eta Infiernos mendiaren tontor nagusia erdietsiz gero euren lehenbiziko hiru milakoa izango zela aitortu zidan. Neuk euskalduna nintzela, eta haraino joateko goizaldeko lauretan zutitua nintzela jakinarazi nionean, erantsiz halaber jaitsitakoan etxeraino gidatu beharko nuela biharamunean lantokira joateko, barrez lehertu zen neska, ene planari sekulako erokeria zeritzola, eta euskaldunok astakeriak egiten parekorik ez dugula jaulkiz.

Gune zuria pasatuta Tebarrai aintzira xarmagarriarekin egin genuen topo, ur azalaren zati batek jelatuta zirauela artean, ur gardenetan aldirietako muinoak eta zeru urdina islatzen zirela, eta paisaia argazki gisa gorde nuen mugikorrean. Ur pixka bat edan eta gorantz segitu genuen, lantzean behin aditzera ematen nien nondik zihoan harri multzoz markatutako bidezidor mehea, altuera sigi-saga irabaziz harkaitzen artean, zonalde hartan lehenago egonda nintzenez ondo ezagutzen nuelako, eta neskak euren doako sherpa partikulartzat hartzen nindutela bota zidan isekaz. Igoeraren amaiera aldean, hiru tontorretako aurrenekora ailegatzen ari ginela, urratsa azkartu eta atzean utzi nuen bikotea. Jarraian dagoen granito zurizko zubi naturala zeharkatzeari lotu nintzaion orduan, mendiak dituen hiruretan garaiena den bigarren tontorraren xerka, eta behin hara arribatuta zenbait erretratu atera eta otordua egiteko prestatu nintzen, han zegoen bikote frantziar batengandik apur bat aldentuta. Aurki iritsi ziren bi espainiarrak, eta eskuaz oles eginik nik nireari eutsi nion, jan bidenabar ikuspegi zoragarriak liluratuta.

Hartan nengoela, ezustean asturiarra hurreratu eta ene ezkerrean jesarri zen, parean geneukan Garmo Negro mendiaz eta inguruko beste gain nahiz bideez itaunka, kalakari. Ni zurtuta nengoen mutil kantabriarrarengandik urrundua zelako, bakarrik lagata, eta nirekin gozo ari zelako, erraz mintzo baitzitzaidan, adeitasunez, egia esan atseginez hartu nuen bere konpainia. Ez zen neska altua, itxura arina zeukan, eta antiojo ilunak kendu zituenean argitasunak oinazetutako begi gaztinkareei so eginda, edertasun sotil bat zuela ebatzi nuen. Zinezko poza irradiatzen zuen, arrokazko esparru lakar hartan egote hutsaz asebeteta zirudiela, eta aspaldiko lagun minak ginela iradokitzen zuen moldean egiten zidan berba, inolako presarik gabe, gailurrak abegi egin zigun haize bako giro gardenean uros. Hirugarren tontorreraino jo genuen atsedenen ostean, bi espainiarrek eta hirurok, eta banandu ginen hurrena, haiek Panticosako bainuetxera artez beheartzeko moduren bat bilatzera partitu baitziren, eta ni eurekin joateko gonbidapenari muzin eginda igoerako bidea alderantziz burutzeko gertatu nintzen, ez bainuen jaisteko presarik, ez eta egun paregabeaz gozatzea beste xederik.

Haatik, halabeharrari esker tarte batez solaskide eta adiskide izan nuen neska arrotz haren irudia gomutan edukiko nuen gerora, bere hurbiltasuna eta ezfitasuna garunean josita geratu baitzitzazkidan, eta apika berriz aurkituko nuela amestu gura izan nuen. Zeren eta handik egun batzuetara, hainbat lanegunen ondoren Pirinioetan astebete emateko baimena neukan, bakantzen banaketa Zuriñe emaztearekin negoziatuz lortutakoa, abuztuaren lehenengo astean.

Zoriontsua izan nintzen abuztuko aste hartan, bakarka egon arren, ene izaera zaputza lagun. Meteorologia agentzien iragarpen ezkorrak gorabehera, gauetz euria erruz erori eta kanpin denda mela-mela eginda utzi arren ateri mantentzen ziren egunak, eta zenbait gailur zapaldu ahal izan nituen. Denda Benasque herritik hur dagoen camping batean jarri nuen hasieran, eta dena ederto joan zitzaidan, alafede. Lehenbiziko egunean, zalu batean menderatu nuen Posets mendia (3.369 metro), bigarren egunean Perdiguero mendiaren erpina (3.222 metro) inkatu nuen, eta hirugarrenean mendizerrako errege eztabaidaezina den Aneto mendiarena (3.404 metro), glaziarra eta Mahomaren Pasabidea ospetsuan barna, ia beti bezala jende dezente zegoela.

Hurrengo eguna alferkerian lotsarik gabe iraulkatzeko erabili nuen, xahututako indarrak berritu behar bainituen. Denda desmuntatu eta udatiarrez lepo zegoen Benasquera joanda, tabernetan jan eta edan, estaldura berreskuratuta telefonoko mezuak arakatu eta berriak igorri, dei batzuk egin, janaria erosi, sagarrak, bananak, txokolatedun gailetak, ogia eta hestebeteak ohi legez, egunkariak irakurri munduaren albiste izateko, eta eramana nuen Sarrionandiak izkiriaturako olerki liburua pittin bat leitu nuen. Gogaitu nintzenean autoa hartu, Ordesa Haraneraino gidatu, eta Torla herria baino gorago dagoen camping batean paratu nuen denda. Ondorengo bi egunetan, zeruaren urdina estalita ere busti ez ninduten hodeien zemaipen, Monte Perdido (3.355 metro), eta Taillon (3.144 metro) menditzarren gailurrak oinperatzeko ohorea izan nuen, azken hau Brèche de Roland izeneko arrail bitxia trabeskatuz.

Monte Perdido bereziki latza egin zitzaidan, aurreko jardunaldietako ahaleginetan bildutako ahiduraren eraginez, bistakoa baitzen atsedean egunean ez nintzela aski suspertu. Akabuko zatia arnasestuka igotzen niharduela, gainditua nuen bi mila metrotik gorako desnibelak eta garaiera hartako oxigeno eskasiak ahulduta, bihotz taupadak garbi nabaritzen, Infiernos mendian ezagututako neska asturiarra idoro uste izan nuen, beherantz etorrita nirekin gurutzatu zen anderean. Batez ere ahotsa egin zitzaidan ezaguna, hango lainopeko hotzari eta elurraren berezko distirari aurre egitearren jantzita zituen txano, buff eta betaurreko ilunek ez baitzidaten aurpegia ikuskatzeko paradarik eskaintzen, eta susmoak susmo ez nintzen deus esatera ausartu, gerora damutuko nintzenez.

Emaztearekin adostutakoa betez, mendialdeko aste hippya agortuta etxera itzuli nintzen txintxo, beribilaz. Bertan bizkar-zorroa mendiko arropa zikin kirasdunaz hustu eta hondartzarako

kamiseta, txinal nahiz bainujantziz zamatu, eguzkitarako gauzak erauzi barik, eta Santa Pola Alacanteko itsasertzeko herriraino garraiatuko ninduen autobusean egokitu nintzen, han Zuriñe eta seme-alabak baintuen aiduru, zortzi egun lehenago joanda. Emazteak telefonoz ziurtatua zidan hango beroa eramateko modukoa zela, ez zela jasanezina alegia, sargoriari diodan beldurra baretzearren, 30-32 graduko hozberoa aipatuz eta kezkarik gabe joateko aholkatuz. Alta, gezur edo oker biribila, autokarretik behehitu eta berehala nozitu nuen aro itogarriaren zaplada, bidaiaria gauez buruturik goizeko zazpitan arribatu banintzen ere, eta bero sapa ekiaren higiduraren arabera areagotuko zen noski, alokatu genuen apartamentuan aire egokiturik ez zegoela barrundatzeko artean. Pare bat egun geroago, edaritegi batean garagardo hotz bat mustatu ahala orriztatu nuen kazetan zioten udako egunik kiskalgarrienean ailegatua nintzela herri malapartatu hartara, 38-40 graduen diktadurapean, bertan pasatuko nuen bero zakarra iragarritz.

Lurralde ezin lehorrago hartan, ez baitakit edateko ura non demontre eskuratzen duten, guk badaezpada ur botilak erosten genituen, andreak bere eguzki zaletasunaren tirania irmoa ezarri zidan. Hots, umeak esnatu eta gosaldurako hondartzara goizero, itsasoko uren epeltasunak Mediterraneoaren bazterretako herrialde guztietako sein orok han gernua isuria zuela pentsarazten zuela. Eta apartamentuan bazkaltzeko tartea iraganda arratsaldero haurrez mukurua egoten zen urbanizazioko igerilekura, uretan etengabe sartuta egoteak azala zimurtzeaz gain soinak freskatzeko dituelakoan. Baina ortziko suzko bola beilegia egun osoan garezurraren gainean sumatzeak gaixotzen ninduen ordea, eta nire kabutan oldozten nuen ez nuela bekatu ankerrik egin horrelako zigorraren merezidun izateko. Eta gainera jator agertu behar hango aita-ama eta aitona-amona berrikeriekin, Zuriñek eskatuta, purrustadaka erantzuteko desira gogoz kontra itoz.

Goizero izerdi patsetan blai itzarri, eta lotaratu arte izerdia isurtzen nuen uneoro azaleko xularme guztietatik, saguzarren tamainako eltxo gosetiek ziztatu eta odola noiznahi xurgatzen zidatela, gauetako ehiza espedizio eroetan ale franko kalitu arren. Bestalde, igerian ez dakidanez itsasertz nahiz igeritokiko orduetan asper-asper eginda egoten nintzen, txikiak izanik gure umeek ez zuten herrixka edo museorik bisitatzeko nahiz osteratxorik egiteko betarik ematen, eta hondartzan esaterako harean zuloak egin eta ur gaziz betetzean zetzan libertimendua.

Ondorioz, baldintza tamalgarri haietan gatibatuta, gogamenaz baizik ezin nuen ospa egin, Pirinioetako mendiztar eta aintzira kutunetara adibidez, eta burmuinean neska asturiarraren eitea eta boza agertzen zitzaizkidan ezinbestean. Nondik nora ibiliko zen galdegiten nion ene buruari, igotzen ariko zen mendiak asmatu guran, bidaide zuen mutila adiskide hutsa, lehengusua edo neba izango zela sinetsi nahian, Infiernos menditik onik jaitsiko zen ziurtasunez, Monte Perdidon

beherantz zetorrenak bera izan behar zuela erabakiz eta han mututu izanagatik ene leinua madarikatuz, begi aitzinean neukan sendiarengandik asago.

Santa Polako egonaldian nola edo hala biziraun ostean Euskal Herrira bihurtzeko tenorea heldu zen, hozkirri, laino eta hezetasunaren itxaropenez alai osatu nuen bidaia, bekozko ilunez zegoen emaztearen atsekabea ene aldaratearen ifrentzua zela. Artean bi asteo oporraldia neukan zain, jaiak topatuko genituen herrian, eta laketasunerako zirrikiturik antzematen zen ostertzean. Alabaina, zoritxarrez errealitate gordina gailenduko zen beti legez, eta haurren apeten mende mugitu behar izan ginen batetik bestera, erraldoiak eta buruhandiak hemen, barrakak han, puzgarriak eta umeentzako jolasak enparantza honetan, pailazo ileurdin eta ilegorriak beste karrika hartan, Zuriñek eta biok egunak zeharo akituta bukatzen genituela, kontzertuak edo gaueko taberna giroa dastatzeko nahiz larrutan aritzeko indarge. Egunak fite pasatu ziren, eta lantokira bueltatzeko sasoa bazetorkidan gainera, apurka-apurka giza arima erailtzen duen lan errutinaren mehatxuaz, eta irailero hutsik egin gabe dakarkidan depresioaz hornituta.

Eta banpez, beharrean hasi aurretik, eztanda egin nuen. Ihesari eman nintzaion, derrigorrez egin behar nuen, ez zegoen bestelako irtenbiderik, apetatsu jokatzeko ari nintzela onartuta ere. Etxean bakarrik nengoen goiz batean, barne bulkada sukartsu baten poderioz mendiko bizkar-zorroari oratu, jantziak, kranpoiak, pioleta, kanpin denda, lo-zakua eta abar eskuratu, dena automobilean sartu, eta hamaika bider hartutako Huescarako errepidean barneratu nintzen berriro, behinola euskal mendiak izan ei ziren haiexen xerka, emazteari adio eta azalpen laburreko whatsapp bidali ondoren mugikorra amatatuz. Delibero tinkoa hartua nuen, ibarrez ibar eta tontorrez tontor ibiliko nintzen, baso sarriak eta pendiz mortuak miatuko nituen, indarrek erantzuten zuten bitartean behinik behin, neska asturiarraren peskizan, tematuta nengoen hartan, ilusioak birarazten baitu mundua, ilusioak gidatzen ditu gizakiak, eta erakartzen ninduen ilusioa dama hura ediretea zen, helburu soila izanik huraxe, kausituz gero ez bainekien zer arraio kontatuko nion edo zer egingo nuen. Orobat, uko egin nion lantokira hots egin eta argibideak emateari, eta lan loturak etenda igartzean askatasun sentipen miragarri batek hartu ninduen.

Horrela bada, horretan jardun dut orain arte, Euskal Herritik jin nintzenetik igarotako bi aste luzeotan Aragoi, Katalunia eta Frantziako goi lurretako haitzen artean ibili naiz gogotsu, mendi bidexketan gora eta behera nekaezin, sarrio izukorrak eta marmota gizen txistulariak kirika nituela, haizebeetan uzkurtuta ilargi eta izarren azpian lokartuz, herrietara elikagaiak erosteko gerturatuz soilik, baina maluruski neska asturiarra idoro ezinik ostera, eta abaildurak harrapatu nau. Birrinduta nago dagoeneko, oinez egitean daramadan abiadura nabarmen moteldu da, gorputz zargal hau ozta-ozta higitzen dudala, kemenak huts egiten dit eta ez naiz ene buruaz fio.

Zalantzak erne zaizkit garunean, amore eman eta etxera itzultzeko tentaldia ere izan dut, baina sendoa izan behar naizela ihardetsi diot ene buruari, eta bilaketari eustea hobetsi dut.

Dena den, jabetzen naiz hain makal egonda, alderrai nabilela eta arreta atxikitzea gero eta zailagoa zaidala, amildegi eta trokaz jositako eremu elkorrotan ezbehar negargarri bat jasateko probabilitateak izugarri biderkatzen direla. Eta urrian sartuta gaudenean hasi da eguraldia petraltzen, tai gabeko haize takar honekin, trumoi, tximista eta zaparraden oldarra nozitu dut honezkero, udagoieneko aurreneko malutak jausi dira bortuak zurutuz, eta temperatura asko apaldu da, batik bat gauez, nire osasunak ederto pairatu du, ez tul itsusi honek salatzen duenez.

Horregatik taxutzen ari naiz testu xume hau, geroari aieru txarra hartzen diodalako hain justu, eta nagoen harrizta honetatik bihar egunsentian abiatuko naizen Vignemale glaziardun mendia igotzean patuak ipinitako oztoporen batekin estropezu hilgarririk gertatuz gero testigantza bat gera dadin bederen. Horrela fortunatuko balitz, eskertuko nuke eskuizkribu hau Zuriñe emazte maiteari helaraztea, argipen eta barkamen eskari gisa har dezan, bihotzak baitiost gaizki jokatu dudala berarekin. Adierazi bezala, etorkizuneko bidazti ezezagun hori, kaixo eta agur, dena batera.

Pirinioetan, 2014ko urriaren 5ean.

Ander Larrea”

Tristura sakon batek bildu du neska txunditua, axota urdinaz eta hizki txikiz idatzitako hiru orri izurtuak leitu berritan, zirrara handia eragin baitiote. Hasperen eginda, begi gorritu hezeak paperetatik jaso eta harkaitzen artean datzan gorpuaren bisaia zurbil eta odoleztatuari so geratu da, atzean mutil-lagun urduriaren ahotsa entzuten duela, larrialdi zerbitzuetako mintzaideekin telefonoz hitz egiten.

Anartean itzal ikusezin eta muturluze batek, habia suntsitua abandonatuta, isilik dakusa eszena. Bere presentziaz jabetzen ez den neskaren gorputzari itsatsita dago ia, izerdi eta lurrin usainen nahasketa atsegina antzemanaz, pozik, aurkitzerik izan ez duen andereak bera topatu duelako finean, berandu bada ere. Eta bai, orain badago prest hodeien arterako azken igoerari heltzeko.

Amaiera